

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5053

AGINDUA, 2016ko urriaren 28koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, 2016ko apirilaren 18ko Aginduaren bidez iragarritako lehiaketa ebazten duena.

Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 51., 52., eta 53. artikuluekin bat etorritik, eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu generiko hutsak betetzeko Auzitegi Medikuen Kidegoarentzako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin duen 2016ko apirilaren 18ko Aginduaren arabera (maiatzaren 31ko EHAA eta BOE),

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lekualdatze-lehiaketa ebaztea, eta I. eranskinean adierazitako funtzionarioari esleitzea deialdian jasotako lanpostua. Bete gabe uzten dira II. eranskinean adierazitako lanpostuak. Lekualdatze-lehiaketatik kanpo uztea Justiziako Langilearen Atariko web-orrian adierazten diren funtzionarioak.

Bigarrena.– Lortutako lanpostuaz jabetzeko epea hiru egun naturalekoa izango da, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun naturalekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu, eta hogeit hamar egun naturalekoa beste autonomia-erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomia eta Melillako Hiri Autonomia. Azken kasu horietan, epea hilabetekoa izango da, bai lanpostua jatorrikoa bada bai destinoko bada. Plazaren esleipendunak plazaren jabetza hartzearekin batera zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, epea hogeit hamar egunekoa izango da.

Plazaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen duen funtzionarioentzat haxe joko da funtzionarioaren herrizat: zerbitzuan non diharduen, herria zeinetan lanean diharduen. Destinoko zentro bereberek jarraitzen badu, lanpostua uzteko eguna eta plazaz jabetzeko eguna bata bestearen ostekoak izango dira.

Jabetza hartzeko epe hori lanpostutik kentzen den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen, eta lanpostutik kentze hori lehiaketaren ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan gauzatu beharko da.

Lehiaketan lortutako lanpostuari dagokionez eskumena duen administrazioak ordainduko du lanpostuaz jabetzeko epea.

Ebazpenak badakar zerbitzu aktiboan berriro hastea sektore publikoan zerbitzuak egiteagatik borondatezko eszedentziatik, interes partikularrengatik eszedentziatik, familia batzeko borondatezko eszedentziatik edo funtzioen etenean izatetik, jabetzea egiteko epea argitaratze horretatik aurrera zenbatu beharko da.

2016ko azaroaren 28a, astelehena

Interesdunei eman zaizkien baimenak eta lizentziak (oporraldiak barne) bukatzen direnean hasiko da lanpostuaz jabetzeko epeen zenbaketa.

Agindu honek administrazio-bideari bukaera ematen dio, eta, aurka egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Bestela, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek ezarritako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 28a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2016ko azaroaren 28a, astelehena

I. ERANSKINA

Lehiaketa fasea

Esleipenduna	NANA	Hurrenkera zk.	Esleitutako lanpostua	Jatorrizko lanpostua
Molineru Rojas, Miren Igone	18591102H	119	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Arabako Zuzendariordeztza Lanpostuaren kodea 240001 Dotazioa 9	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Bizkaiko Zuzendariordeztza Lanpostuaren kodea 240001 Dotazioa 14

2016ko azaroaren 28a, astelehena

II. ERANSKINA

Lanpostu bete gabeak

Hurrenkera zk.	Destino-zentroa	Lanpostuaren kodea	Dotazioa	Lanpostuaren izena
104	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Bizkaiko Zuzendariordetza	240001	14	Orotariko auzitegi-medikua
106	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Bizkaiko Zuzendariordetza	240001	18	Orotariko auzitegi-medikua
112	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Bizkaiko Zuzendariordetza	240001	23	Orotariko auzitegi-medikua
113	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Bizkaiko Zuzendariordetza	240001	24	Orotariko auzitegi-medikua
114	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Gipuzkoako Zuzendariordetza	240001	3	Orotariko auzitegi-medikua
115	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Gipuzkoako Zuzendariordetza	240001	4	Orotariko auzitegi-medikua
116	Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea - Gipuzkoako Zuzendariordetza	240001	5	Orotariko auzitegi-medikua